



Kalitatezko hezkuntza baterantz: Heriotzaren pedagogia



Uzt. 01 - Uzt. 02 2024

Kod. H05-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 01 - Uzt. 02 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Denok hilko gara, denok. Haurrari, gazteari, bere bizitzan zehar hainbat heriotza bizitzea egokituko zaizkio, azkenean, bere heriotza -oso zaharra denean izan dadila- bizi arte. Eta hala ere, heriotza gertatuko ez balitz bezala egiten dugu. Baita hezkuntzan ere.

Ikastaro honetan heriotzaren eta doluaren pedagogiaren inguruan hezkuntza komunitatean izandako esperientziekin eta adituen ezagutzeekin aberasteko aukera izango dugu. Eta denon artean iritziak trukatu eta ikasteko momentuak sortuko ditugu.

- Bizitzarako hezkuntza da pedagogia. Bizitza osotasunez hartu eta haurrek eta gazteek heriotzaren aurrean kokatzeko berez dituzten baliabideak aktibatzen laguntzen du, bizitzak ekarriko dizkien heriotza ezberdinak hobeto bizi ditzaten.
- Normalizazio lanean, inguruan heriotzarik gertatu ez den momentuetan, egunerokotasuna eta beste baliabideak erabiltzen ditu heriotzari buruz hitz egiteko, eta pentsatzeko, eta emozioak elkarrekin partekatzeko sortzen dituen egoerak baliatzen ditu.
- Doluaren hezkuntza-laguntzan, edozein galeren aurrean sortzen zaizkigun emozioen kontzientzia hartzea eta doluaren prozesu naturala ezagutzea sustatzen ditu; eta hezkuntza komunitatean eman daitezkeen heriotzen aurrean jarraitu beharreko bide-orria edo protokoloa sortzea ezinbestekotzat jotzen du.

Helburuak

Hezkuntza komunitaterako heriotzaren eta doluaren pedagogiak dituen onurak ezagutaraztea.

Euskal Herrian izan diren esperientzien berri jasotzea, lehen eskutik.

Pertsonok heriotzaren aurrean kokatzeko berez ditugun baliabideen kontzientzia hartzea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Programa

2024-07-01

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkarte
09:15 - 10:15	“Eskolen esperientzia: Antzuolako eskolan, heriotzaren pedagogian sakonduz” Josune Jimenez Villacastin Antzuolako Herri Eskola - Irakaslea eta tutorea Elixabet Pueyo Zubiria Antzuolako Herri Eskola - Irakaslea eta tutorea
10:15 - 11:15	“Gurasoen esperientzia: Seme-alabekin heriotzaz hitz egitearen garrantziaz” Manex Beristain Agirre Irakaslea
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:45	“La pedagogía de la muerte: escuela para la vida” Elizabeth Ransanz Elisabet Universidad Internacional de la Rioja - Coordinadora del Área de Teoría e Historia
12:45 - 13:45	“Muerte y proceso radical de cambio en la educación” Agustín De La Herrán Gascón Universidad Autónoma de Madrid - Profesor titular de universidad
13:45 - 15:30	Atsedena
15:30 - 17:00	Mahai ingurua: “La pedagogía de la muerte en la escuela” Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkarte (Moderatzailea) Agustín De La Herrán Gascón Universidad Autónoma de Madrid - Profesor titular de universidad Elizabeth Ransanz Elisabet Universidad Internacional de la Rioja - Coordinadora del Área de Teoría e Historia Manex Beristain Agirre Irakaslea Josune Jimenez Villacastin Antzuolako Herri Eskola - Irakaslea Elixabet Pueyo Zubiria Antzuolako Herri Eskola - Irakaslea

2024-07-02

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkarte
09:15 - 10:15	“Eskolen esperientzia: Eskolan heriotza bizi izan dugunean, elkarrekin erantzunez” Itziar Otermin Figueroa Aratz Ikastola - Irakaslea Maiteder Requejo Castro Aratz Ikastola - Irakaslea
10:15 - 11:15	“Doluen interbentzioa: Heriotza baten aurrean hezkuntza komunitateak egoki erantzuteko gakoak” Francisco javier (Patxi) Izaguirre Ormazábal Psikologo klinikoa

11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:45	<p>“Ikastetxeko dolurako bide-orria: humanitatez jarduteko ezinbesteko tresna”</p> <p>Txema Ormazabal Elola Bidegin Elkartea - Pedagogoia</p>
12:45 - 13:50	<p>Mahai ingurua: “Doluaren trataera eskolan”</p> <p>Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea (Moderatzailea) Txema Ormazabal Elola Bidegin Elkartea - Pedagogoia Francisco javier (Patxi) Izaguirre Ormazábal Psikologo klinikoa Itziar Otermin Figueroa Aratz Ikastola - Irakaslea Maiteder Requejo Castro Aratz Ikastola - Irakaslea</p>
13:50 - 14:00	<p>Itxiera</p> <p>Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea</p>

Zuzendaritza



Nere Erkiaga Laka

Hil Argi Elkarte

La Laguna Unibertsitatean Tanatologia Masterra (2017), Euskal Herriko Unibertsitatean Komunitate Garapena eta Parte Hartze Masterra (2007) eta Mondragon Unibertsitatean Euskal Kulturaren Transmisioan Graduondoa (2011) ikasketak eginda ditu. Taldeen bideratzean eta heriotzaren inguruko ezagutza zabaltzen eskarmentua du eta Hil Arte Bizi sortu du, heriotzaren aurrean herritarrak eta komunitateak ahalduntzeko egitasmoa. 2018an Hil Argi Elkartearen sorrera bultzatu du. Elkarte honek, besteak beste, "Gehiago Gara" ekimena eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzat "Bertso ipuin bat zuretzat" egitasmoak abiatu ditu. 2020-2021 ikasturtean zehar, Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan heriotzaren inguruko ezagutza hedatzeko 41 ataletako tartea bideratu zuen: <https://hilargi.eus/irratian/>

Irakasleak



Manex Beristain Agirre

Titulazioz Psikopedagogian lizentziatua Eukal Herriko Unibertsitatean. Gorputz Hezkuntzan eta Haur hezkuntzan diplomatua. Psikomotrizitatean 4 urteko formazioa. Barreterapia tailerrak eta artearen bidez, heriotzaren eta doluaren inguruko bizipenezko tailerrak eskaintzen diardu adin desberdinetako partaideei. Bi semearen aita eta alarguna. "Azken galdera amari" ipuinaren sortzailea eta gaur egun ipuinaren aurkezpen-saioak eskaintzen dihardu, kantu eta ipuin-kontaketa bidez. Informazio gehiago: <https://www.manexberistain.eus/>



Agustín De La Herrán Gascón

Pedagogo, Licenciado en Filosofía y Ciencias de la Educación (Sección: Ciencias de la Educación) (UCM). Master en Psicología Escolar (UCM). Doctor en Educación (UCM). Es profesor titular del Departamento de Pedagogía de la Universidad Autónoma de Madrid. Director del grupo de Cuenta con 3 sexenios de investigación (CNEAI). Actualmente investiga en la crítica y alternativa radicales a la Pedagogía, la Didáctica General, la educación y la enseñanza desde el "enfoque radical e inclusivo de la educación". Ha recibido una veintena de premios y reconocimientos por su trayectoria académica, docente e investigadora o por proyectos en los que ha trabajado. Más información: <https://pedagogiadelamuerte.com/> <https://radicaleinclusiva.com> <https://pedagogiafc.com/> <https://pedagogiaprenatal.es/que-es-la-pedagogia-prenatal/>




Nere Erkiaga Laka

Hil Argi Elkarte


La Laguna Unibertsitatean Tanatologia Masterra (2017), Euskal Herriko Unibertsitatean Komunitate Garapena eta Parte Hartze Masterra (2007) eta Mondragon Unibertsitatean Euskal Kulturaren Transmisioan Graduondoa (2011) ikasketak eginda ditu. Taldeen bideratzean eta heriotzaren inguruko ezagutza zabaltzen eskarmentua du eta Hil Arte Bizi sortu du, heriotzaren aurrean herritarrak eta komunitateak ahalduntzeko egitasmoa. 2018an Hil Argi Elkartearen sorrera bultzatu du. Elkarte honek,

besteak beste, “Gehiago Gara” ekimena eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzat “Bertso ipuin bat zuretzat” egitasmoak abiatu ditu. 2020-2021 ikasturtean zehar, Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan heriotzaren inguruko ezagutza hedatzeko 41 ataletako tartea bideratu zuen: <https://hilargi.eus/irratian/>



Francisco javier (Patxi) Izaguirre Ormazábal

Psikologia klinikoan espezialista da eta esparru pribatuan aritzen da (psikologo klinikoa). Psikoterapian aditua da, Europako Psikoterapia Federazioaren (EFPA) eskutik. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, 2016/17 ikasturtetik aurrera dolu-prozesuari buruzko eskolak ematen ditu Psikologia orokor sanitarioko masterretan eta Arreta goiztiarreko masterrean. Ekintza Ikastolako psikologoa 1998. urtetik 2005. urtera. Hezkuntza, osasun eta gizarte arloetako erakundeen dolu-prozesuari buruzko prestatzailea eta aholkularia. “Cómo superar el duelo: Hablar de la muerte nos acercamos a la vida” liburuaren egilea, Almuzara (2021). Kasu klinikoen, larrialdietako esku-hartzeen eta autozaintza profesionalaren gainbegiralea.



Josune Jimenez Villacastin

Profesora y tutora. Titulada en Magisterio por la Universidad de Mondragon. Tras ser profesora en diferentes centros, comenzó a trabajar en la escuela de Antzuola hace 12 años. Abandonó la mayor parte de lo aprendido hasta entonces y se adentró en el modelo pedagógico de la Antzuolako Herri Eskola. Otra forma de entender la educación y el alumnado, con otra mirada. Intentando que cada día la clase se convierta en un mundo mágico para el alumnado.



Txema Ormazabal Elola

Bidegin

Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakaskuntzan Diplomatu titulaturia. IPIR Institutuan Eredu Integratibo-Erlazionalaren bidez galera, dolu eta traumetan esku hartzeko ikasketak eginak ditu. Suizidiologian unibertsitate aditua da. Bidegin Elkartearen bidez hainbat ikastetxeetan doluaren eta

galeren inguruko interbentzioetan laguntza ematen du.



Itziar Otermin Figueroa

Profesora y psicopedagoga. Cuenta con veinte años de experiencia en la tutorización de alumnos de diferentes etapas y edades en la docencia. Actualmente es profesora de la Ikastola Aratz y en los últimos años ha sido tutora del segundo ciclo de Primaria.



Elixabet Pueyo Zubiria

Profesora y tutora. Cursó los estudios de Magisterio y Psicopedagogía en la Universidad de Mondragon. Ha realizado su carrera profesional en diferentes centros educativos y en los últimos cuatro años trabaja en la Antzuolako Herri Eskola. Allí ha tenido la oportunidad de conocer la pedagogía de la muerte y ponerla en marcha en su trabajo diario.



Elizabeth Ransanz Elisabet

Psikopedagogian doktore eta Pedagogian lizentziaduna (UCM) eta Psikologian graduatua (UNIR). Masterra Arteterapian eta Gizarteratzeko Arte Hezkuntzan (UAM). Mario Losantos Fundazioaren bidez haurtzaroan eta nerabezaroan izandako galera eta doluan espezialista da. 2001. urteaz geroztik, Arteterapiaren prestakuntzarekin batera, doluaren eta galeraren arloan hezkuntzan esku hartzeko programak garatzen ari da. Ikerketa ugari egin ditu, besteak beste, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Pablo Rodríguez eta Agustín de la Herrán Gascón doktoreek zuzendutako “Innovación e inclusión de la muerte y la conciencia de finitud en el ámbito educativo formal” izeneko I+G+B ikerketa. Hainbat artikulua argitaratu ditu, besteak beste, “La muerte en la construcción de la identidad personal. Intervenciones educativas” (2016), “Recursos educativos sobre la Pedagogía de la Muerte” (2021) edo “Arteterapia y prevención del suicidio. Una revisión bibliográfica sobre las principales aportaciones de la Arteterapia en la prevención del suicidio en adolescentes” (2022).



Maiteder Requejo Castro

Profesora, psicopedagoga y neuropsicóloga. Cuenta con veinte años de experiencia docente, concretamente en el campo de la educación especial. Actualmente profesora de la Ikastola Aratz y en los últimos años está consolidando la asignatura de Inteligencia Emocional en la Ikastola.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-01 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzia	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	61,00 EUR
Donostia Kultura	-	61,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	61,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	61,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa